

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Azkuna = Fraga?

Fragak esan ohi zuen ez zeukala ezer marikoen kontra, beti ere marikoi-keriak logelan egiten baldin bazituzten. Iritzi berekoak omen dira Azkuna jauna eta, harrigarriagoa dena, Madrazo andrea. Nola ulertu, bestela, ekainaren 28an Arriaga Plazan dagoen udal mastan gay bandera jarri eta homofobiaren aurkako mezuak ematea; eta, aste batzuk lehenago, lasai asko, Bilboko Udalak onartu berri duen Espazio Publikoaren Ordenantza proposatu eta defendatu izana?

Izan ere, delako arautegian* surrealismo hutsa diren artikulua daude, hala nola kometatan jolastea debekatzea, kometa bat urtean behin ere ikusten ez den Bilbo bezalako hiri batean; kalean edatea debekatzea, edaria tabernatan erosia denean izan ezik... Are atal surrealista goak zeuden, herri-presioari esker aldatuak izan direnak; adibidez: espaloietatik oinezkoak eskuinetik ibiltzera derrigortzea, ideia politikoen propaganda egitea debekatzea!

Sexu-askatasunaren aldeko erakunde bateko kide den honentzat, orde, modu berezian eskandalizatzeko modukoa da 16. artikulua. Bertan kale-prostituzioa debekatzen da. Hori berori nahikoa arrazoi izango zen araudiaren erabat kontra egoteko, beste batzuetan azaldu ditudan eta errepikatuko ez ditudan zioengatik. Baina ez, are harago joatera ausartu, eta



IÑIGO AZKONA



Hemendik aurrera, beraz,
akabo kotxe barruko txortak
edota parkeko iluntasunaren
babespean eginiko zirri
edota musuak



izaera barru-barruko —*intimo*— eta pertsonaleko adierazpen afektibo oro, eta sexuarekin zerikusirik izan lezakeen beste edozer, espazio publikoan debekatzeraino heldu dira, gizalegezkoa ez omen delako holako zerrikeriarik egitea besteen aurrean. Hemendik aurrera, beraz, akabo kotxe barruko txortak edota parkeko iluntasunaren babespean eginiko zirri edota musuak. Isunak ere ez dira halamoduzkoak: huts arina (aipatu berri ditugun zirri edo musuak, kasu) 750 □; huts larria (ume aurrean egitea) 1.500 □. Sinesgaitza, ez da? Baina erreala, tamalez.

Hainbatek pentsa lezake tokiko afera dela. Bada, ez. Bartzelonakoa izan zen holako ordenantzetako lehen estatuan. Gero, beste zenbait hiritan kopiatua izan da, kopiatze bakoitzean errepreboago bihurtu delarik. European ere antzekorik bada. Bilbokoa aurrera ateraz gero, laster izango ditugu antzekoak Donostian, Iruñean edo Getxon. Larria da, gero, ustez gaindituta zegoen katiximako moralinean eta sexofobian oinarrituriko arautegia baita. Martxa honetan Torquemada txiki utziko dute laster. Ikusteko jaioak, alajaina! ■

*http://www.bilbao.net/castella/espacio_publico/normativa/ordenanzas/ordenanza_espacio_publico.pdf Ordenantza erdaraz; euskaraz ez ci dago idatzita.

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ez daude hain urrun Iparalde honetan *Force basque* amu bezala udan egiten ziren erakustaldiak turistak arrain. Bospasei ikastola, Seaska hastapenetan, Herri Urrats baten batzuen linboan eta herrietako dantza taldeak eta pelotariak zeruan. Turismoaren menpekotasunaren aurkako kanpaina militanteak indarrean, euskara eta lana herrian errebindikaten zituzten komertzianteen haserrera. Guztia, frantses bakarrean. Gogoan dut hegoaldekoak espainoltzat frantsesetz aurkeztzen ziren garaia, esan bezala atzokoak. Aste honetan inguratu gara Urruñan antolatutako horietako batera. Bertako bi talde ohiko kirol jokoetan

Emeki, badoa

elkarren arerio. Aurkezpenak euskaraz, frantsesetzko adierazpenez paratuak. Hegoaldeko atleta bakarra, urruñar hizkuntza duen gipuzkoartzat aurkeztua, euskaldunak bat garela esanaz argitua. Megafoniatik garai hartan kantu errebindikatzailak kontsideratuak. Eta partaideen arteko hizkuntza, salbuespenak apaingarri, eskuara. Estatistikek besterik erakusten badigute ere gure ardurarako, hemen euskarak bide egin du, jada abandonatu du agurren leku baztertzaila eremu honetan. Eta turistak pozik beste kultura baten berri izanez. Ez ziren ez turistak gure arazo, haiek guk ezkututzen geniena ezagutzeko prest zeuden, Urruñako euskal indarra lekuko. ■